

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 3217

*AGINDUA, 2022ko ekainaren 23koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baitira Mintzola Fundazioa izeneko fundazioa azkentzeko eta likidatzeko erabakiak.*

2021eko abenduaren 31n sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erregistro Orokorrean, Mintzola Fundazioaren azkentzea eta likidazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidea. Azkentzeko erabakia eta likidazio-eragiketak Bilboko Juan Ramón Manzano Malaxechevarria notarioak 2021eko abenduaren 30ean baimendutako eskritura publikoan gauzatu ziren (protokolo-zenbakia: 2340).

Horrekin batera, administrazio-espeditentean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu baten bidez, azkentze- eta likidazio-espeditente honi buruzko ebazpena, bat etorritz arau hauetan xedatutakoarekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espeditenteari funtsezko iritzitako datuak eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 40., 41., 42., 43. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 48. eta 49. artikuluetan aurreikusitako baldintzak.

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Mintzola Fundazioa izeneko fundazioa azkentzeko eta likidatzeko erabakiak, agindu honen datarekin, Bilbon, Juan Ramón Manzano Malaxechevarria notarioaren aurrean, 2021eko abenduaren 30ean, egiletsitako azkentze- eta likidazio-eskrituran aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 2340).

### XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, ondorioz, honen aurka, aukurako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiokoe Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko

2022ko uztailaren 14a, osteguna

auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioa-  
rekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 23a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.